

# ERRONKAL. \*

¡Bizi bedi Nafarroa!

## I.

¡Erronkal-ibar ezkutatiya!  
 ¡Zenbat umanten kabiya!  
 Basoz, arkaitzez, estalirikan  
 Arkitzen zera guztiya.  
 Sortitzak, nonbait, arkaitz oyetan  
 Jarri du indar aundiya,  
 Jarri du ausartz<sup>1</sup> izugarriya,  
 Ereñ du kemen biziya,  
 Menditarraren biyotza, geldi  
 Dedin indarrez jantziya.

¡Bai, bai! ¿zergatik ¿zergatik! no-  
 Bestela zure semeak, (la  
 Azaltzen dira bazter danetan  
 Ausardi biziz beteak?  
 Ardiyak zaitzen azi diranak,  
 Gerratan oitu gabeak,  
 ¿Nola dakusgu milla ta milla  
 Gudatan garaitzalleak,  
 Irabazirik izen ospatsu,  
 Kondairak ongi gordeak?

Ugaritsuak dirade zure  
 Mendi-latzetan arkaitzak;  
 Ugaritsuak zure gereizdun  
 Basoetako zuaitzak,  
 Ekaitz gogorak eziñ lurrera

Dituen beziñ bortitzak;  
 Ugari zuri zizkitzun eman  
 Soro-larreak Sortitzak;  
 Baña geyago dirade zure  
 Seme bikaiñen garaitzak.

Zure kondaira miresgarriyan  
 Baldin bagera tinkatzen,<sup>2</sup>  
 ¡Zénbat azaiña, zénbat egintza  
 Omentsu<sup>3</sup> ez da topatzen!  
 Ez dira danak, azturik, laster  
 Mendi-tartean gelditzen;  
 Ez ditu danak erruki-gabe  
 Denboren autsak estaltzen;  
 Baizik batzuek, aitarren-seme  
 Dirade gugan iristen.

Gugan irichi dan garaipen bat  
 Nai nuke nik gaur kantatu,  
 Erronkaltarren egintz aundi bat  
 Euskal-Erriyan azaldu;  
 Nere kantaren soñuarekin  
 Mendi zokonak esnatu,  
 Beren oyarzun<sup>4</sup> dunboslariyaz  
 Erronkaltarrak goititu,  
 Mundu guziyak, beren kondaira  
 Leyala dezan mirestu.

(\*) Composicion premiada con *Una rosa de oro* en el certámen verificado en Pamplona en 1884. (V. pág. 357).

(1) Valor.—(2) Fijarse.—(3) Glorioso.—(4) Eco.

## II.

¿Zér da Náfarrak?... ¿Zér soñu di-  
Ebroz onontztik aditzen? (ra  
¿Kantauriyako itsasoa da  
Bere lekutik irtetzen,  
Ubazter danak, zelai guztiyak  
Dituelarik estaltzen?... (diyak  
¿Zér sumur dira?... ¿Ditu men-  
Barrungo suak mugitzen?...  
¡Ez!... ¡es! mairuak, mairu-samal-  
Dira goiteriz<sup>1</sup> urbiltzen. (dak

Nola chimista su ta-gar, odei  
Trinko beltzetik irtenik,  
Bere bidean arkitzen duen  
Guzti-guztiya zatirik,  
Begira dauden gizon gaisoen  
Biyotzak, izuz beterik.  
Eziñ esan dan beziñ agudo  
Tokarteak <sup>2</sup> igarorik,  
Ikusitzen dan, ondorendikan  
Sua, galmena lagarik...

Ekaitz alduna, bildugarriya,  
Sugoi-tokiyan <sup>3</sup> sorturik,  
Nola dijoan, borchaz odeiyak,  
Atsematean, bultzarik,  
Itsas-gañean arkitzen diran  
Ontzi gaisoak aztiñik,  
Arrapatutzen dituen zuaitz  
Danak lurrera botarik,  
Arkaitzak, ere, bere bultzadaz,  
Dar-dar ikaraz jarririk...

Ala mairuak, ondaturikan,  
Desegiñikan erriyak,  
Soilmendurikan lén eder zeuden  
Zelai ta loretegiyak,  
Aurrera doaz, mendera nairik  
Nafarroako mendiyak,  
Azpira nairik, beretan bizi  
diraden gizon sutiyak,  
Irabaz-nairik, jazar-oyetan,  
Omenak eta sariyak.

Erronkaltarrak, mairu-samaldak  
Nola datozen jakiñik,  
Bildutzen dira mendi-gañetan  
Gudu-irrintzak egiñik:  
Gizonak esta emakumeak  
Guztiyak daude suturik,  
Armaturikan daude guztiyak,  
Danak, ausartzaz beterik;  
Gordozkeratu nairik mendiyak,  
Danak geziyak prestarik.

¡Mairuak datoz!—esaten dute—  
¡Begira nola datozen!  
¡Begira beren arma-burniyak  
Nola duten distiatzen!...  
Chit asko dira... baña ¿zér dio?...  
Gure mendiyak igotzen  
Gichiturikan geldiko dira...  
¡Ez bildur izan! ¡ez arren!  
¡Aurrera, beraz! ¡aupa t'aurrera!  
¡Mutillak, jechi gaitezen!

Eta nola dan uramilde <sup>4</sup> bat  
Jechitzen mendi gañetik,  
Arkaitzak bera saltatutzean,  
Agitzki dunbots egiñik;  
Ala Nafarrak amiltzen dira  
Mendiyak bera, pizkorrik,  
Zantzoka, baso-charetan dauden  
Pizti guztiyak izurik,  
Mairudiyetan beren irrintzaz  
Izaldura <sup>5</sup> sarturik.

Olast-aldean top-egin dute  
Menditarrak ta mairuak;  
Elkarren kontra jazarran asi  
Dira biziro sutuak,  
Oi duten eran, goyetan elkar  
Jo gogor odei gartsuak...  
Ango deadar izugarriyak,  
Ango burniyen soñuak,  
Ango negarrak, angó kurrikak,  
Ango chiliyo mintsuak...

(1) De soberbia.—(2) Los espacios.—(3) Region etérea.—(4) Cascada.—(5) Pavor.

Gogor, chit gogor gudatzen dira  
 Batzuek eta besteak;  
 Guztiyaz daude, guzti-guztiyak  
 Ausardi biziz beteak...  
 Baña Nafárrak, ikusitzean  
 Gañean mendi maiteak,  
 Ikusitzean, an urbillan,  
 ¡An! beren jayot-echeak,  
 Aurrera doaz pizkor, egiñaz  
 Azaiña berdingabeak.

Aurrera doaz... eta mairuak  
 Asitzen dira bildurtzen,  
 Begiratzen zenbat anaiya  
 Diran illotzik erortzen;  
 Begiratzean, zeñ ausarkiro  
 Diran Nafárrak gudatzen,  
 Begiratzean nola doazen  
 Jazar-tokiyaz<sup>1</sup> nausitzen,  
 Nola doazen, alde danetan,  
 Etsaiyak azpiratutzen.

Iges dijoaz mairu-martitzak...  
 Lagarik jazar-tokiya,  
 Iges dijoaz, beren joairan  
 Galdurik zuten guztiya...  
 Erronkaleko emakume bat,  
 Umantsua<sup>2</sup> ta sutiya,  
 Aurreratzen da, segitzen die,  
 Garturik biyotz alaiya,  
 Terrege-mairu Abderraman-i  
 Kendutzen dio biyiya.

Danak joan dira... Lokabe<sup>3</sup> daude  
 Nafárrak, zuen mendiyak:  
 Alperrik etor ziran mairuak...  
 Alperrik... Ujol biziyak,  
 Goaitik<sup>4</sup> indar biziz irtenik,  
 Ondatzen ditu zelaiyak,  
 Ondatzen ditu landak, alorrak,  
 Ondatzen ditu saroiyak...  
 Baña ¿sekulan ondatu ditu  
 Baso ta mendi goitiyak?...

¿Zér uste zuben Abderraman-ek?  
 ¿Zér uste zute mairuak?...  
 ¿Pentsatzen zuten menderatzea  
 Nafárren mendi goitsuak?...  
 ¡Uste zoroa!... Beren belaunak  
 Dirade guztiz malguak...<sup>5</sup>  
 Beren bularrak guztiz bigunak...  
 Gorputzak minberatsuak...  
 Eta mendiyak, gogorak... eta  
 Gogorrentzako sortuak.

Alper-alperrik izan ziraden  
 Mairu guztiyen indarrak,  
 Alper-alperrik... emen ez dauka  
 Lekurik atzerritarrek...  
 Bertakoentzat Jaunak egiñak  
 Dira mendiyak, ibarrak...  
 Eta mairuak ¿azpiratu nai  
 Zituzten Erronkaltarrak?...  
 Fortun Garzia beste Erregerik  
 Ez dute bear Nafarrak...

Eta norbaitek, egunen baten  
 Badu sentitzen ustea,  
 Zu mendeturik, ikusitzeko,  
 Erronkal-ibar maitea,  
 Gogora dezan, azterritarren  
 Goinaiyen azken tristea,  
 Gogora dezan zeñ indartsua  
 Dan zugañ dagon jendea,  
 Mendi-gañetan izkriba zazu:  
*Lokabea ta pakea.*

K. ECHEGARAY-KOAK.

(1) Del campo de batalla.—(2) Heróica.—(3) Libres.—(4) De cáuce.—(5) Suas, blandas.